

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2009ko urtarrilaren 1etik sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 10a.– Diputatu Nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

#### Foru Aginduak

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

942

**46/2009 FORU AGINDUA, Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Diputatuena. Honen bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 303 Autolikidazio eredu eta 308 Itzultzeko eskaera eredu onartzen dira. Baliokidetasun errekargua, BEZaren arautegiaren 30 bis artikulua eta noizbehinkako subjektu pasiboak, baterako ereduaren urteko autolikidazioa eta 034 eredu "Erkidego barruko Eragileen Erregistroa".**

Apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegiak 71. artikulua xedatzen du, inportazioen gainean ezarritakoa salbu, subjektu pasiboek beren kabuz zehaztu behar dutela zerga zorra. Horretarako, aipatutako artikuluan jasotako arauen arabera aitorpen-likidazioak erabiliko dituzte. Aitorpen-likidazioak egiteko, kasu bakoitzerako Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Saileko foru diputatu titularrak zehazten duen eredu beteko da. Aitorpen-likidazio horiek hileko edo hiruhileko likidazio epearen ondorengo hileko lehenengo hogeita bost egunetan aurkeztuko dira.

Xedapen horiek betetzeko, eredu hauek onartu ziren beste batzuen artean: 300 eredu, hiruhileko aitorpen-likidazioari buruzkoa, 320 eredu, hileko aitorpen-likidazioari buruzkoa, eta enpresa handiak eta 330 eredu (hileko aitorpen-likidazioa). Esportatzaileak eta bestelako eragile ekonomikoak.

2009an Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen sistema orokortzeak aukera ematen du hileko itzulpen hori hautatzen duten subjektu pasiboek likidazioaldi bakoitzaren amaieran beren alde dagoen saldoa itzultzeko eskatu ahal izateko, eragiketen izaera eta bolumena edozein dela ere eta araz ezarri diren baldintzak, eskakizunak eta prozedurekin bat.

Likidazioaldi bakoitzaren amaieran subjektu pasiboek kobratzeke duten aldeko saldoa itzultzeko eskatu ahal izateko, foru agindu honek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidaziorako eredu bakarra (303 eredu) onartzen du, indarreko 300, 320 eta 330 eredu ordez balioko duena. Eredu berri hori, alegia, 303 eredu, autolikidazioa egiteko aldizka egiteko betebeharrak duten Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek erabiliko dute, likidazioaldia hiruhileko naturalekoa izan zein hilabete naturalekoa. Salbuespen izango dira aipatutako zergaren Erregimen Berezi Erraztua aplikatzen duten pertsona fisikoak edo erakundeak edo entitate taldeen erregimen berezia aplikatzen dutenak. Aipatutako azken kasu horretan, aipatutako erregimen berezi horietarako onartu diren autolikidaziorako eredu bereziak aurkeztuko dira.

Bestalde, beharrezko ikusten da 308 eredu berria onartzea, errepedez bidaiariak edo salgaiak garraiatzeko jarduerari egin eta zergaren erregimen erraztuaren pean dauden subjektu pasiboek duten ondorengo eskubidea baliatze aldera: aipatutako jarduerari atxikitako garraio bideak eskuratzearen ondorioz jasandako kuota kengarriak

Segunda. Entrada en vigor.

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y surtirá efectos desde el día 1 de enero del año 2009.

Vitoria-Gasteiz, 10 de febrero de 2009.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

#### Órdenes Forales

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

DIRECCIÓN DE HACIENDA

942

**ORDEN FORAL 46/2009 del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de 2 de febrero, por la que se aprueban los modelos del Impuesto sobre el Valor Añadido, 303 Autoliquidación, 308 Solicitud de devolución. Recargo de Equivalencia, artículo 30 bis del Reglamento del IVA y sujetos pasivos ocasionales, 353 de autoliquidación anual modelo agregado y 034 de Registro de Operadores Intracomunitarios.**

El artículo 71 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido aprobado por el Decreto Foral 124/1993 de 27 de abril, dispone que salvo lo establecido en relación con las importaciones, los sujetos pasivos deberán realizar por sí mismos la determinación de la deuda tributaria mediante declaraciones-liquidaciones ajustadas a las normas contenidas en el citado artículo. Las declaraciones-liquidaciones deberán cumplimentarse y ajustarse al modelo que, para cada supuesto determine el Diputado Foral Titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos y presentarse durante los veinticinco primeros días naturales del mes siguiente al período de liquidación mensual o trimestral, según proceda.

Para cumplir con este precepto, se aprobaron, entre otros, el modelo 300 de declaración-liquidación trimestral, el modelo 320 de declaración-liquidación mensual. Grandes empresas y el modelo 330 de declaración-liquidación mensual. Exportadores y otros Operadores Económicos.

La generalización en el año 2009 del sistema de devolución mensual en el Impuesto sobre el Valor Añadido, establece la posibilidad de que los sujetos pasivos que opten por ello, con independencia de la naturaleza de sus operaciones y del volumen de éstas, y de acuerdo con las condiciones, términos y requisitos y procedimiento establecidos reglamentariamente, puedan solicitar la devolución del saldo a su favor pendiente al final de cada período de liquidación.

Para posibilitar la solicitud de devolución del saldo a favor de los sujetos pasivos pendiente al final de cada período de liquidación, la presente Orden Foral aprueba un único modelo 303 de autoliquidación del Impuesto sobre el Valor Añadido, que sustituye a los vigentes modelos 300, 320 y 330. El nuevo modelo 303 deberá utilizarse por los sujetos pasivos del Impuesto sobre el Valor Añadido con obligaciones periódicas de autoliquidación, tanto si su período de liquidación coincide con el trimestre natural como si coincide con el mes natural, excepto en el supuesto de las personas físicas o entidades que apliquen el Régimen Especial Simplificado del citado Impuesto, o en el supuesto de entidades que hayan optado por aplicar el Régimen especial del grupo de entidades, en cuyo caso presentarán los modelos de autoliquidación específicos aprobados al efecto para los citados regímenes especiales.

Por otra parte, se hace necesario aprobar un nuevo modelo 308 que permita ejercer el derecho, regulado en el artículo 30 bis del Reglamento de Impuesto sobre el Valor Añadido, de los sujetos pasivos que ejerzan la actividad de transporte de viajeros o de mercancías por carretera y tributen por el régimen simplificado del

itzultzeko eskatzekoa garraio bideak eskuratu eta hurrengo hilaren hogeita bost egunetan, beti ere zenbait eskakizun betetzen badira.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Arauak 164. artikuluan, lehenengo idatz zatian, 6. zenbakian, xedatzen du subjektu pasiboak behartuta daudela urteko aitorten-laburpena aurkezttera, arauz zehazten diren eskakizun, muga eta baldintzekin, zenbait erregimen berezirentzat ezarritako berezitasunei kalterik egin gabe. Entitate taldeen erregimen berezia ezartzearen ondorioz, beharrezkoa da foru agindu honen bidez urteko baterako autoliquidazioaren 353 eredu berria onartzea. Eredu hori zergaren subjektu pasiboek erabiliko dute, entitate taldeen erregimen berezia aplikatzea aukeratu badute.

Azkenik, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hilean egindako itzulketen erregistro berria arautzeak eta esportatzaileen eta bestelako eragile ekonomikoen erregistroa desagertzeak eskatzen dute 034 ereduaren egungo izena Erkidego barruko Eragileen Erregistroa izenez aldatzea.

Zergadunetik Harremanetarako Zerbitzuaren buruak 2009ko urtarrilaren 30ean horri buruz egindako txostena aztertu da.

Hori dela bide, eta dagozkidan ahalmenak baliatuz, hauxe

#### XEDATU DUT:

Lehenengoa. 303 eredu onartzea.

1. Foru Agindu honetako I. eranskinean jasotzen den 303 eredu "Autoliquidazioa. Balio Erantsiaren gaineko Zerga" onartzen da.

Ereduak bi ale izango ditu: bata administrazioarentzat eta bestea interesdunarentzat.

2. Eredu hori Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasibo hauek aurkeztuko dute:

a) Likidazio aldia hiru hilabete naturala duten subjektu pasiboek, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko Araugintzako Foru Dekretuak IX. tituluko II. kapituluaren arautzen den erregimen berezi erraztua aplikatzen duten pertsonak edo entitateek izan ezik, eta, orobat, aldizkakoak ez diren aitorten-likidazioak aurkezteko obligazioa duten pertsona edo entitateek, apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegiak 71.7 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

b) Likidazio aldia hil naturalekoa duten subjektuek, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegiak 71.3 artikuluan 1., 2. eta 3. idatz zatian ezarritakoekin bat etorritik.

Bigarrena. 308 eredu onartzea.

1. Foru Agindu honetako II. eranskinean jasotzen den 308 eredu "Balio Erantsiaren gaineko Zerga, itzulketa eskaera: baliokidetasun erre-kargua, BEZaren Arautegiaren 30 bis artikulua eta noizbehinkako subjektu pasiboak".

Ereduak bi ale izango ditu: bata administrazioarentzat eta bestea interesdunarentzat.

2. Zergaren subjektu pasibo hauek aurkeztuko dute eredu:

a) Noizbehinka garraio bide berrien emate salbuetsiak egiten dituztenek eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 93. artikuluan bigarren idatz zatian eta 94. enaren bigarren idatz zatian xedatutakoari jarraituz garraio bidea eskuratzean jasandako edo ordaindutako kuotak itzultzeko eskatzen dutenek.

b) Errepidez bidaiariak edo salgaiak garraiatzeko jarduerari zergaren erregimen erraztuaren pean dauden eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegiak 30.3 artikuluko b) eta c) letretan ezarritako baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboek, esandako jarduerari atxikitako garraio bideak eskuratzearen ondorioz zergatik kendu daitezkeen kuotarik jasan badituzte. Aipatutako garraio bideek, salgaiak garraiatzeko jardueraren kasuan, N1 kategoriaren barruan egon behar dute eta baimendutako masa gutxienez 2.500 kilokoa izan behar

Impuesto, de solicitar la devolución de las cuotas soportadas deducibles en la adquisición de medios de transporte afectos a dicha actividad durante los primeros veinticinco días naturales del mes siguiente a aquél en el cual hayan realizado la adquisición del medio de transporte y siempre que cumplan determinados requisitos.

El artículo 164, apartado uno número 6, de la Norma Foral del Impuesto sobre el Valor Añadido, dispone que, sin perjuicio de las peculiaridades establecidas para determinados regímenes especiales, los sujetos pasivos del Impuesto estarán obligados, con los requisitos, límites y condiciones que se determine reglamentariamente a presentar una declaración resumen anual. Como consecuencia del establecimiento del Régimen especial del grupo de entidades, se hace necesario aprobar mediante la presente Orden Foral un nuevo modelo 353 de autoliquidación anual agregada del Impuesto sobre el Valor Añadido, que deberán utilizar los sujetos pasivos del Impuesto que hayan optado por aplicar el Régimen especial del grupo de entidades.

Por último, la regulación del nuevo registro de devolución mensual en el Impuesto sobre el Valor Añadido y la desaparición del Registro de exportadores y otros operadores económicos, exige sustituir la denominación del modelo 034 por el de Registro de Operadores Intracomunitarios.

Visto el informe de fecha 30 de enero de 2009 emitido al respecto por la Jefa del Servicio de Relación con los Contribuyentes.

En su virtud, y en ejercicio de las facultades que me competen,

#### DISPONGO

Primero. Aprobación del modelo 303

1. Se aprueba el modelo 303 de "Autoliquidación. Impuesto sobre el Valor Añadido" que figura como Anexo I de la presente Orden Foral.

Dicho modelo consta de dos ejemplares: uno para la Administración y otro para el interesado.

2. Este modelo será presentado por los siguientes sujetos pasivos del Impuesto sobre el Valor Añadido:

a) Aquellos cuyo período de liquidación coincida con el trimestre natural, salvo las personas o entidades que apliquen el Régimen especial simplificado regulado en el Capítulo II del Título IX del Decreto Foral Normativo 12/1993 de 19 de enero del Impuesto sobre el Valor Añadido, o en el supuesto de personas o entidades que tengan la obligación de presentar declaraciones-liquidaciones de carácter no periódico, según lo previsto en el artículo 71.7 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, aprobado por el Decreto Foral 124/1993 de 27 de abril.

b) Aquellos cuyo período de liquidación coincida con el mes natural, de acuerdo con lo establecido en los apartados 1º, 2º y 3º del artículo 71.3 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Segundo. Aprobación del modelo 308

1. Se aprueba el modelo 308 "Impuesto sobre el Valor Añadido, solicitud de devolución: recargo de equivalencia, artículo 30 bis del Reglamento del IVA y sujetos pasivos ocasionales" que figura como Anexo II de la presente Orden Foral.

Dicho modelo consta de dos ejemplares: uno para la Administración y otro para el interesado.

2. Este modelo será presentado por los siguientes sujetos pasivos del Impuesto:

a) Aquellos que realicen con carácter ocasional entregas exentas de medios de transporte nuevos y que conforme a lo dispuesto en los artículos 93 apartado dos y 94 apartado dos, de la Norma Foral del Impuesto sobre el Valor Añadido, soliciten la devolución de las cuotas soportadas o satisfechas en la adquisición del medio de transporte.

b) Aquellos que ejerzan la actividad de transporte de viajeros o de mercancías por carretera, tributen por el régimen simplificado del Impuesto y cumpliendo los requisitos establecidos en el artículo 30.3.b) y c) del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, hayan soportado cuotas deducibles del Impuesto como consecuencia de la adquisición de medios de transporte afectos a dicha actividad, y en el supuesto de que los citados medios de transporte hayan sido adquiridos por sujetos pasivos que ejerzan la actividad de transporte de mercancías

dute, edo Kontseiluaren 1970eko otsailaren 6ko 70/156/EEE Zuzentzarauaren II. eranskineko N2 eta N3 kategorien barruan egon. Halaber, kuota horiek itzultzeko eskatzen duten subjektu pasiboek, erregimen erraztuko hiruhilekoko autolikidazioetan aipatutako kuota kengarriak adierazi ez badute edo, hala dagokionean, adieraziko ez badute zergaren arautegiak 38.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

c) Baliokidetasun errekarguko erregimen bereziaren pean dauden, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aipatutako Foru Arauaren 117. artikulua adierazten duen bidaiarien erregimenean esportatzaileei itzulketak egin, eta itzuli izan diren kuoten zenbatekoa itzultzeko eskatzen duten subjektu pasiboek.

Hirugarrena. 353 eredu –urteko autolikidazioa– onartzea  
353 eredu –Entitate taldea. Baterako eredu. Urteko autolikidazioa–, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoa, onartzen da. Eredua hori foru agindu honen III. eranskinean ageri da.

Eredua hori Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Arauaren IX. tituluan IX. kapituluaren araututako entitate taldeen erregimen berezia aplikatzea aukeratu duten subjektu pasiboek aurkeztuko dute.

Laugarrena. 034 eredu –Erkidego barruko Eragileen Erregistroa– onartzea

034 eredu –Erkidego barruko Eragileen Erregistroa– onartzea. Eredua hori foru agindu honen IV. eranskinean ageri da eta bi ale ditu: bata administrazioarentzat eta bestea interesdunarentzat.

Bosgarrena. 034 eredu erabiltzeko era

034 eredu Erkidego barruko Eragileen Erregistroan alta edo baja emateko erabiliko da. Honako hauek osatuko dute erregistroa:

a) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako araututa dagoen Identifikazio Fiskaleko Zenbakia daukaten pertsona eta entitateak, eta Erkidego barruan zerga horren pean dauden ondasunak eman edo eskuratzen dituztenak.

b) Ondasun prestazioen hartzaile ez ezik Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasibo ere badirenak, baldin eta horien gauzatzekua, zerga honen ondorioetarako, eskuratzailerak eragiketa egitean erabili diren Identifikazio Fiskaleko Zenbakia esleitu dion estatua zein den kontuan hartuz zehazten bada.

c) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 14. artikuluan aipatzen diren pertsona eta entitateak, zerga horren pean dauden erkidego barruko ondasun eskuraketak egin behar dituztenean.

Eskabidea erregistro horretan alta zein baja emateko bada, altaren edo bajaren data zehatza jarri beharko da bertan.

Seigarrena. 303 eredu, 308 eredu eta 353 eredu –urteko autolikidazioa– aurkezteko era

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 116.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, likidazioaldi bakoitzaren buruan beren aldeko saldoa itzultzeko eskatu ahal dute subjektu pasiboek. Horrelakoetan, 303 ereduaren bidez aurkeztuko da, foru arau honen 11. paragrafoan xedatutako baldintza eta prozedurekin bat etorritik.

2. Gainerako egoeretan, 303 ereduaren bidez ez ezik inprimaki ofizialean ere aurkeztu ahal izango da.

3. 308 eredu, berriz, inprimaki ofizialean aurkeztuko da.

4. 353 eredu –urteko autolikidazioa– internet bidez aurkeztuko da, foru arau honen 11. paragrafoan xedatutako baldintza eta prozedurekin bat etorritik.

Zazpigarrena. 303 eta 308 eredu buruzko inprimakiak aurkezteko lekuak

por carretera estén comprendidos en la categoría N1, que tengan al menos 2500 kilos de masa máxima autorizada, o comprendidos en las categorías N2 y N3 del Anexo II de la Directiva 70/156/CEE, del Consejo, de 6 de febrero de 1970, y que soliciten la devolución de dichas cuotas, siempre que no hayan consignado, o en su caso, no vayan a consignar, las referidas cuotas deducibles en las autoliquidaciones trimestrales correspondientes al Régimen simplificado de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 38.2 del Reglamento del Impuesto.

c) Aquellos sujetos pasivos que tributen en régimen especial del recargo de equivalencia, que hayan efectuado las devoluciones a exportadores en régimen de viajeros a que se refiere el artículo 117 de la citada Norma Foral del Impuesto sobre el Valor Añadido, y que soliciten el reintegro del importe de las cuotas que hayan sido objeto de devolución.

Tercero. Aprobación del modelo 353 de autoliquidación anual

Se aprueba el modelo 353 de “Grupo Entidades. Modelo Agregado. Autoliquidación anual” del Impuesto sobre el Valor Añadido, que figura como Anexo III de la presente Orden Foral.

Este modelo será presentado por los sujetos pasivos del Impuesto que hayan optado por aplicar el Régimen especial del grupo de entidades regulado en el Capítulo IX del Título IX de la Norma Foral del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Cuarto. Aprobación del modelo 034 de Registro de Operadores Intracomunitarios

Se aprueba el modelo 034 de Registro de Operadores Intracomunitarios que figura en el Anexo IV de la presente Orden Foral y que consta de dos ejemplares: uno para la Administración y otro para el interesado.

Quinto. Utilización del modelo 034

El modelo 034 se utilizará para solicitar el alta o la baja en el Registro de Operadores Intracomunitarios. Este registro estará formado por:

a) Las personas o entidades que tengan atribuido el Número de Identificación Fiscal regulado a efectos del Impuesto sobre el Valor Añadido y vayan a efectuar entregas o adquisiciones intracomunitarias de bienes sujetas a dicho tributo.

b) Los sujetos pasivos del Impuesto sobre el Valor Añadido que vayan a ser destinatarios de prestaciones de servicios cuyo lugar de realización a efectos del mismo se determine efectivamente en función de cuál sea el Estado que haya atribuido al adquirente el Número de Identificación Fiscal con el que se haya realizado la operación.

c) Las personas o entidades a que se refiere el artículo 14 de la Norma del Impuesto sobre el Valor Añadido cuando vayan a realizar adquisiciones intracomunitarias de bienes sujetas a dicho Impuesto.

Tanto si la solicitud se refiere al alta como a la baja en el citado Registro deberá hacerse constar la fecha efectiva de dicha alta o baja.

Sexto. Forma de presentación de los modelos 303, 308 y 353 autoliquidación anual

1. En el supuesto de sujetos pasivos que opten por solicitar la devolución del saldo a su favor existente al término de cada período de liquidación de acuerdo con lo dispuesto en el apartado Uno del artículo 116 de la Norma Foral del Impuesto sobre el Valor Añadido, la presentación del modelo 303 se efectuará de forma obligatoria por vía telemática a través de Internet, de acuerdo con las condiciones y procedimiento previsto en el apartado undécimo de la presente Orden Foral.

2. En los demás supuestos, la presentación del modelo 303 podrá realizarse en impreso oficial o voluntariamente por vía telemática a través de Internet.

3. La presentación del modelo 308 deberá realizarse en impreso oficial.

4. La presentación del modelo 353 de autoliquidación anual, se efectuará de forma obligatoria por vía telemática a través de Internet, de acuerdo con las condiciones y procedimiento previsto en el apartado undécimo de la presente Orden Foral.

Séptimo. Lugar de presentación de los modelos 303 y 308 en impreso

Bat. 303 ereduari –autoliquidazioa– buruzko inprimakia ondoko lekuetan aurkeztu ahal izango da:

a) Autoliquidazioaren ondoren dirua ordaindu beharra badago:

1. Otsailaren 27ko 25/226 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera erakunde laguntzaile diren bankuetan eta aurrezki kutxetan.

Erakunde laguntzailean ordaindu izanaren agiriak aurkezpen eta ordainketaren ordezkagiri gisa balioko du.

2. Posta arruntez edo zertifikatuz, Arabako Foru Aldundiaren izenean duela bankuko transferentziaren edo posta-igorpenaren ordezkagiriaren fotokopia; aitortpenaren jatorrizkoa ere bidali behar da (inprimaki ofizialak erabili badira), edo aitortpena agertzen den paper inprimatua (aitortpena egiteko, laguntza programa erabili bada).

b) Itzuli nahiz konpentsatu beharreko autoliquidazioak eta jarduerarik gabeko autoliquidazioak:

1. Arabako Foru Aldundiaren bulegoetan.

2. Posta arruntez edo zertifikatuz; honela eginez gero, jatorrizko aitortpena edo aitortpenaren inprimakia bidali behar da.

Bi. 308 autoliquidazio eredu Arabako Foru Aldundian aurkeztuko da edo, bestela, posta arruntez edo zertifikatuz. Azken era horretan aurkeztuz gero, aitortpenaren jatorrizkoa edo berori jasotzen duen inprimakia ere aurkeztuko da.

Hiru. Inprimaki ofizialetan aurkezten diren 303 eta 308 autoliquidazio ereduak Arabako foru ogasunak emandako identifikazio txartelak eraman beharko dituzte atxikita.

Lau. “Bat” paragrafoan ezarritakoa ez da aplikatuko Interneten bidez bidalitako autoliquidazioetan. Autoliquidazio horiek “diputaciondigital” atariaren bitartez bidaliko dira, emaitza edozein dela ere.

Zortzigarrena.- 303 eredu aurkezteko epea

1. Subjektu pasiboak izan eta likidazio aldia bat badator hil naturalarekin, 303 autoliquidazio eredu eta, hala bada, itzultzeko eskaera edo hura ordaintzea hileroko autoliquidazio aldia bukatu ondorengo hilaren lehenengo hogeita bost egunetan aurkeztuko dira. Uztailakoak, berriz, abuztuaren zehar edo irailaren lehen hamar egunetan aurkezteko aukera izango da, eta ekitaldiko azken aldiari dagokion autoliquidazioa urtarilaren lehen hogeita hamar egunetan.

2. Subjektu pasiboak izan eta likidazio aldia bat badator hiru-hileko naturalarekin, 303 autoliquidazio eredu hiruhileko autoliquidazio aldia bukatu ondorengo hilaren lehenengo hogeita bost egunetan aurkeztuko da. Aurkeztu eta ordaindu beharra ere badago, aldi horretan ordainduko da. Ekitaldiko azken aldiari dagokion autoliquidazioa, berriz, urtarilaren lehen hogeita hamar egunetan aurkeztuko da.

Bederatzigarrena. 308 eredu aurkezteko epea

1. Garraioberri berri salbuetsiak entregatzen dituzten subjektu pasiboek noizbehinka aurkezten badituzte autoliquidazioak eta horiek itzultzeko eskaerak, autoliquidazio eta eskaera horiek aurkezteko hogeita hamar egun izango dituzte, emakida hori egin zenetik aurrera.

2. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregimenaren 30.bis artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, garraioberria erosi zeneko hurrengo hileko lehen hogeita bost egunetan aurkeztuko dira Zergaren erregimen erraztuaren pean ordaintzen eta errepidean zehar bidaiariak edo salgaiak garraiatzen dituzten subjektu pasiboak itzultzeko eskaerarekin batera egindako autoliquidazioak.

3. Subjektu pasiboek, baliokidetasun errekarria dela eta, bidaiariaren erregimenaren pean itzuli badiete esportatzaileei, subjektu pasibo horiek itzultze urteko hiruhileko bakoitza amaitu ondorengo hileko lehen hogeita bost egunetan aurkeztuko dituzte eskaerarekin batera egindako autoliquidazioak, azken hiruhilekoari dagokionak izan ezik.

Uno. La autoliquidación modelo 303 en papel impreso podrá presentarse en cualquiera de los siguientes lugares:

a) Autoliquidaciones con resultado a ingresar:

1. En Bancos o Cajas de Ahorro que tengan la condición de Entidad Colaboradora según lo dispuesto en el Decreto Foral 25/226, de 27 de febrero.

El pago en la entidad Colaboradora servirá como resguardo de presentación y pago.

2. Por correo ordinario o certificado, acompañando fotocopia del resguardo de la correspondiente transferencia bancaria o giro postal a favor de la Diputación Foral de Álava, remitiéndose también el original de la declaración (caso de utilizarse los impresos oficiales) o el papel impreso en el que obre la misma (caso de utilizarse para su confección el Programa de Ayuda).

b) Autoliquidaciones a devolver, a compensar o sin actividad:

1. En las oficinas de la Diputación Foral de Álava

2. Por correo ordinario o certificado, incluyendo el original de la declaración o el papel impreso en el que obre la misma.

Dos. La autoliquidación modelo 308 deberá presentarse bien directamente en las oficinas de la Diputación Foral de Álava o bien por correo ordinario o certificado, incluyendo el original de la declaración o el papel impreso en el que obre la misma.

Tres. Las autoliquidaciones modelo 303 y 308 que se presenten en impreso oficial deberán llevar adheridas obligatoriamente las etiquetas identificativas suministradas por la Hacienda Foral de Álava.

Cuatro. Lo dispuesto en el apartado Uno anterior no será de aplicación a las autoliquidaciones que sean enviadas vía Internet. Estas autoliquidaciones se remitirán, independientemente de cual sea su resultado, a través del portal de diputaciondigital.

Octavo. Plazo de presentación del modelo 303

1. En el supuesto de sujetos pasivos cuyo período de liquidación coincida con el mes natural, la presentación de las autoliquidaciones del modelo 303, así como, en su caso, el ingreso o la solicitud de devolución, si corresponde, de la cantidad resultante, se efectuará en los veinticinco primeros días naturales del mes siguiente a la finalización del correspondiente período de liquidación mensual, excepto la relativa al período de liquidación del mes de julio, que se presentará durante el mes de agosto y los diez primeros días naturales del mes de septiembre inmediatamente posteriores y la correspondiente al último período de liquidación del año, que deberá presentarse durante los treinta primeros días naturales del mes de enero siguiente.

2. En el supuesto de sujetos pasivos cuyo período de liquidación coincida con el trimestre natural, la presentación de las autoliquidaciones del modelo 303, así como el ingreso, si corresponde, de la cantidad resultante, se efectuará en los veinticinco primeros días naturales del mes siguiente a la finalización del correspondiente período de liquidación trimestral, excepto la correspondiente al último período de liquidación del año, que deberá presentarse durante los treinta primeros días naturales del mes de enero siguiente.

Noveno. Plazo de presentación del modelo 308

1. La presentación de la autoliquidación con solicitud de devolución por sujetos pasivos ocasionales que realicen entregas exentas de medios de transporte nuevos, se efectuará en el plazo de treinta días naturales a contar desde el día en que tenga lugar dicha entrega.

2. La presentación de la autoliquidación con solicitud de devolución por sujetos pasivos que tributen en el régimen simplificado del Impuesto y ejerzan la actividad de transporte de viajeros o de mercancías por carretera, de acuerdo con lo previsto en el artículo 30 bis del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, se efectuará en el plazo de los primeros veinticinco días naturales del mes siguiente a aquél en el cual se haya realizado la adquisición del correspondiente medio de transporte.

3. La presentación de la autoliquidación con solicitud de devolución por sujetos pasivos en recargo de equivalencia que hayan realizado devoluciones a exportadores en régimen de viajeros, se efectuará en los veinticinco primeros días naturales del mes siguiente a la finalización de cada trimestre del año, excepto la correspon-



Horiek hurrengo urteko urtarrileko lehen hogeita hamar egunetan aurkeztuko dira.

Hiruhileko bakoitzeko autolikidazioetan subjektu pasiboak hiruhileko horretan egindako itzulketak baino ez dira aintzat hartuko.

Hamargarrena. 353 ereduia –urteko autolikidazioa– aurkezteko epea

Eredu hori autolikidazioaren hurrengo urteko urtarrileko lehen hogeita hamar egunetan aurkeztuko da.

Hamaikagarrena.- 303 ereduia eta 353 ereduia –urteko autolikidazioa– Internet bidez aurkezteko era, baldintza orokorrak eta prozedura

1. 303 ereduia eta 353 ereduia –urteko autolikidazioa– Internet bidez aurkezteko era, baldintza orokorrak:

Aurkezpen telematikoak ondoko baldintzak bete beharko ditu:

1. Aitortzaileak Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ) izan beharko du eta Arabako Foru Ogasunaren Zergadunen Erroldan identifikatuta egon. Eta hori guztia aitorten ereduia aurkeztu aurretik.

2. Zergapekoak Arabako Foru Aldundiaren “diputaciondigital” zerbitzuan emana izan beharko du izena, Arabako Foru Aldundiaren Interneteko zerbitzuak erabiltzeko araudia eta prozedura onartzen duen martxoaren 11ko 27/2003 Foru Dekretuan ezarritako prozedurarekin eta foru dekretu hori aldatzen duen apirilaren 22ko 29/2008 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritz.

2. Abenduaren 23ko 110/2008 Foru Dekretuaren 3. artikulua 2., 7. eta 8. paragrafoetan xedatutakoarekin bat etorriko da 303 ereduia eta 353 ereduia –urteko autolikidazioa– Internet bidez aurkezteko prozedura. Foru dekretu horrek aitortenak eta autolikidazioak Foru Ogasunari bide telematikoz aurkezteko baldintzak arautzen ditu.

#### Xedapen indargabetzaile bakarra

Foru agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera, indargabetu egingo dira bertan xedatutakoaren aurkako maila berdineko edo apalagoko xedapen guztiak; batez ere ondokoak:

1. 228/1992 Foru Agindua, otsailaren 14koa, 300, 320 eta 330 ereduak direla eta, zerga betebeharretarako zenbait inprimaki eredu onartzen dituena.

2. 243/1993 Foru Agindua, otsailaren 22koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 300, 310, 320, 330, 370 eta 308 inprimaki eredu berriak onartzen dituena.

3. 141/1995 Foru Agindua, otsailaren 3koa, 330 ereduia –“Esportatzaileak eta bestelako Eragile Ekonomikoak. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko aitopena”– onartzen duena.

4. 594/1995 Foru Agindua, apirilaren 3koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 300, 320, 370, 308 eta 309 inprimaki eredu berriak onartzen dituena.

5. 673/2001 Foru Agindua, urriaren 18koa, 300, 308, 320, 330 ereduak direla-eta eurotan zenbait eredu onartu zituena.

6. 433/2004 Foru Agindua, irailaren 14koa, Esportatzaileen eta bestelako Eragile Ekonomikoen Erregistroaren, eta Erkidego barruko Eragileen Erregistroaren 034 ereduia onartzen duena.

#### Azken xedapena

Foru agindu honek Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera egiten diren eragiketa guztiei aplikatuko zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 2a.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

diente al cuarto trimestre que se presentará durante los treinta primeros días naturales del mes de enero siguiente.

En la autoliquidación correspondiente a cada trimestre sólo se computarán las devoluciones efectivamente practicadas durante el mismo por el sujeto pasivo.

Décimo.- Plazo de presentación del modelo 353 autoliquidación anual

El plazo de presentación de este modelo será los treinta primeros días naturales del mes de enero del año siguiente al que corresponda la autoliquidación.

Undécimo.- Condiciones generales y procedimiento para la presentación telemática por Internet de los modelos 303 y 353 autoliquidación anual

1. Requisitos generales para la presentación telemática de las autoliquidaciones modelo 303 y modelo 353 anual:

La presentación telemática estará sujeta a las siguientes condiciones:

1º. El declarante deberá disponer de Número de Identificación Fiscal (NIF) y estar identificado en el censo de Contribuyentes de la Hacienda Foral de Álava con carácter previo a la presentación del modelo de autoliquidación.

2º. El declarante deberá estar dado de alta como Usuario de los servicios “diputaciondigital” de la Diputación Foral de Álava de acuerdo con el procedimiento establecido en los Decretos Forales 27/2003, de 11 de marzo (que aprueba la normativa y procedimiento a seguir para el acceso de los administrados a los servicios de Internet de la Diputación Foral de Álava) y 29/2008, de 22 de abril, (que modifica el Decreto Foral anterior).

2. El procedimiento para la presentación telemática por Internet de los modelos 303 y 353 anual se ajustará a lo dispuesto en los artículos 3 apartado 2, 7 y 8 del Decreto Foral 110/2008 de 23 de diciembre, por el que se regula las condiciones y requisitos generales para la presentación de declaraciones y autoliquidaciones por vía telemática ante la Hacienda Foral.

#### Disposición derogatoria única

A partir de la entrada en vigor de la presente Orden Foral quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en la misma y en particular las siguientes Ordenes Forales:

1. La Orden Foral 228/1992 de 14 de febrero, por la que se aprueban determinados modelos de impresos para el ejercicio de las obligaciones tributarias, en lo referente a los modelos 300, 320 y 330.

2. La Orden Foral 243/1993, de 22 de febrero, por la que se aprueban los nuevos modelos de impresos 300,310,320,330,370 y 308, relativos al Impuesto sobre el Valor Añadido.

3. La Orden Foral 141/1995, de 3 de febrero, por la que se aprueba el nuevo modelo 330 de “Exportadores y otros Operadores Económicos. Declaración mensual del Impuesto sobre el Valor Añadido”.

4. La Orden Foral 594/1995, de 3 de abril por la que se aprueban los nuevos modelos de impresos 300,320,370,308 y 309 del Impuesto sobre el Valor Añadido.

5. La Orden Foral 673/2001, de 18 de octubre por la que se aprobaron diversos modelos en euros en lo referente a los modelos 300, 308, 320, 330.


6. La Orden Foral 433/2004 de 14 de septiembre por la que se aprueba el modelo 034 de Registro de Exportadores y Otros Operadores Económicos y Registro de Operadores Intracomunitarios.

#### Disposición final

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, y será aplicable a las operaciones realizadas a partir del 1 de enero de 2009.

Vitoria-Gasteiz, a 2 de febrero de 2009.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

I. eranskina/Anexo I

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava <a href="http://www.alava.net">www.alava.net</a></p>	<p><b>Balio Erantsiaren gaineko Zerga</b> <b>AUTOLIKIDAZIOA</b></p> <p><b>Impuesto sobre el Valor Añadido</b> <b>AUTOLIQUIDACIÓN</b></p>	303
---	--	-----

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila      Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

<b>IDENTIFIKAZIOA IDENTIFICACIÓN</b>	ETIKETA JARTZEKO LEKUA ■ ESPACIO RESERVADO PARA ETIQUETA		<b>SORTZAPENA DEVENGO</b>	EKITALDIA ■ EJERCICIO	[ ]	
				EPEALDIA ■ PERÍODO	[ ]	
			Jarduerarik gabe Sin actividad	90	Ordezkoa Sustitutiva	91
Hileroko itzulketetarako erregistroan errolatuta dago (BEZ-aren arautegiko 30. Artikulua)? ¿Está inscrito en el Registro de devolución mensual (Artículo 30 Reglamento del IVA)?			BAI SI	92	EZ NO	93

AUTOLIKIDAZIOA ■ AUTO LIQUIDACIÓN	BEZ ESKURATUA ■ IVA DEVENGADO	OINARRIZKO ZERGAGAIA ■ BASE IMPONIBLE		TIPOA TIPO	KUOTA ■ CUOTA		GUZTIRA ■ TOTALES		
		Erag. Onakor Regim. Gener.	01	02	4%	03			
	04	05	7%	06					
	07	08	16%	09					
	10	11	0,5%	12					
	13	14	1%	15					
	16	17	4%	18					
	19	20	4%	21					
	22	23	7%	24					
	25	26	16%	27					
		ESKURATUTAKO KUOTA GUZTIRA TOTAL CUOTA DEVENGADA .....					(03) + (06) + (09) + (12) + (15) + (18) + (21) + (24) + (27)	28	
KENKARIAK ■ DEDUCCIONES	Bareko arrunten eragiketen BEZ kengaria IVA deducible operaciones interiores corrientes .....					30			
	Bareko inbertsio ondasunen eragiketen BEZ kengaria IVA deducible operaciones interiores con bienes de inversión .....					31			
	Ondasun arrunten inportazioen BEZ kengaria IVA deducible en importaciones de bienes corrientes .....					32			
	Inbertsio ondasunen inportazioa BEZ kengaria IVA deducible en importaciones de bienes de inversión .....					33			
	Ondasun arrunten elkarre bareko eskuraketen BEZ kengaria IVA deducible en adquisiciones intracomunitarias de bienes corrientes .....					34			
	Inbertsio ondasunen elkarre bareko eskuraketen BEZ kengaria IVA deducible en adquisiciones intracomunitarias de bienes de inversión .....					35			
	Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrunta Erejimen Bereziko Kompentsazioak Compensaciones Régimen Especial Agricultura, Ganadería y Pesca .....					36			
	Inbertsioen erregularizazioa Regularización inversiones .....					37			
	KENTZEKOA GUZTIRA TOTAL A DEDUCIR .....					(30) + (31) + (32) + (33) + (34) + (35) + (36) + (37)	38		
	ALDEA DIFERENCIA .....					(28) - (38)	39		
Eragik. Zenbatek Proporz. Banaketa Distrib. Proporc. Volumen operac.		40	41	42	43				
